

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

6400

48/2021 DEKRETUA, abenduaren 22koa, lehendakariarena, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakaria izendatzeko dena.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 19. artikuluan agindutakoaren arabera (urriaren 28ko 6/2021 Legeak aldatua), eta lehendakaria izendatzeko epaitegi horrek 2021eko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran erabakitako proposamena onartuta,

Ana Helguera Líbano andrea izendatzen dut Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 22an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.